

21. ^{æek} korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA



Badator KORRIKA! **B1**

Uda aspaldi joan da; egunak gero eta laburragoak dira; basoak, duela gutxira arte berdeak, kolorez janzten ari dira... Azaroan gaude, udazkenaren erdian. AEKra, baina, udaberria heldu dela dirudi. *Izan ere*¹, euskararen aldeko erakundea apirilari begira dago *dagoeneko*². Zergatik? Datorren udaberrian, lore eta alergiekin *batera*³, oso bisitari berezia etorriko zaigulako Euskal Herrira: KORRIKA, euskararen aldeko *ekitaldirik*⁴ handiena.

02 21. Korrika



Asier Aondo, KORRIKA arduraduna

“Klik” egin nahi diogu garai⁵ berri bati, kulturari, geure hizkuntzari...

2019ko apirilean, KORRIKA, euskararen aldeko lasterketa⁶ erraldoia⁷, Euskal Herrian ibiliko da berriro, eta gure herriak kolorez, musikaz, ilusioz eta, batez ere, euskaraz beteko ditu. Datorren urteko KORRIKA 21.a izango da, eta, lasterketaren aurkezpena egiteko, AEK-k Donostiako San Telmo museoan bildu ditu kazetariak. Bertan, Asier Aondo KORRIKA arduradunarekin hitz egin dugu.

Hil gutxi falta dira gure herrietan “Tipi-tapa, tipi-tapa, KORRIKA!” entzuteko, baina zer da KORRIKA?

KORRIKA euskararen aldeko ekitaldirik handiena eta ikusgarriena da. Lasterketa erraldoia da: hamaika egunez, milaka eta milaka lagun ibiltzen dira **arinetan**⁸, gau eta egun, gelditu gabe, Euskal Herri osoan; 2.000 kilometro baino gehiago egiten dira, jarraian, giro **apartan**⁹, musikaz lagunduta, mozorrotuta...

Baina KORRIKA lasterketa bat baino gehiago da...

Bada, bai. Korrika egiten dugu, baina helburu nagusia ez da kirola egitea, euskararen ezagutza, erabilera eta normalizazioa **bultzatzea**¹⁰ baizik. Beste helburu bat ekonomiko da: euskaltegiei diruz laguntzea.

Oraingoa 21. edizioa da, beraz, denbora luzea darazue KORRIKA antolatzen.

Bai. Lehenengoa 1980an antolatu genuen. Oñatitik Bilbora joan zen KORRIKA hura, eta, nahiz eta esperientzia berria izan, milaka eta milaka lagunek hartu zuten parte. Bueno, garai hartan, “milaka eta milaka zorok” pentsatuko zuen jende askok. Baina zoro haiei eta ondorengo edizioetan parte hartu izan duten beste zoro guztiei esker, apurka-apurka euskararen aldeko ekintzarik handiena bilakatu da KORRIKA. Gainera, ideia atzerrira ere esportatu da: Irlandara, Britainiara, Galiziara...

Lehenengo edizioa Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen. Nondik nora joango da 21. KORRIKA?

Bada, Garesen hasiko da, apirilaren 4an, eta Gasteizen amaituko da, hilaren 14an. Oraindik ezin dizuet ibilbide osoa azaldu, baina, beti bezala, Euskal Herriko herri gehienetara hurbilduko gara. Dena dela, ibilbide zehatza laster **argitaratuko**¹¹ dugu, eta, hala, zuen herritik noiz igaroko den jakin ahal izango duzue.

Zer esan dezakezu mezuari buruz?

Horri buruz ere ezin dut gauza handirik esan. Mezua, beti bezala, azken egunean ezagutuko dugu, Gasteizen...

Mezua lekukoaren¹² barruan gordetzen da, ezta?

Bai, mezua lekukoaren barruan gordeta doa, eta esku esku eramango dute korrikalariak Garesetik Gasteiza. Lekukoa bera ere osagai garrantzitsua da KORRIKAN. Lehenengoa, Remigio Mendiburu eskultoreak egin zuena, museo honetan ikus dezakezue.

Eta kanta?

Kanta ezagutzeko, ez duzue asko itxaron behar, abenduan plazaratuko baitugu. Oraindik ezin dut gehiago esan, baina ziur nago edizio honetako kantak ere, aurrekoek bezala, **arrakasta**¹³ handia izango duela, eta laster ahoz aho ibiliko dela.

20. KORRIKAn, ekimenaren sortzaileak, asmatzaileak, omendu zituen AEK-k. Nor omenduko du 21. KORRIKak?

Dakizuen bezala, KORRIKA bakoitzean, euskararen alde **nabarmendu**¹⁴ den pertsona edo erakunderen bat omentzen dugu, eta, oraingoan, *Txillardegik* izan da aukeratua. Arrazoi ugari daude *Txillardegik* omentzeko, baina aurten arrazoi berezi bat dugu: 2018an, euskara batuaren 50. urteurrena ospatzen ari gara. Euskara batuaren **sorrera**¹⁵ oso urrats garrantzitsua izan da euskararen historian, eta *Txillardegik* **funtsezko**¹⁶ pertsona izan zen sorrera horretan.

Amaitzeko, KORRIKAn leloa dugu. Datorren edizioa "Klika" izango da. Zergatik?

Klika aukera bat egitea da. *Txillardegik* berak, bere garaian, klik egin zion euskarari (ama-hizkuntza gaztelania zuen). Bada, ideia hori zabaldu nahi dugu KORRIKA honetan, proposamen bat egin nahi dizuegu: egin klik zuek ere euskarari, dakizuenek hitz egiteari; ez dakizuenek ikasteari... Klik egitea da euskaraz bizitzea, edo euskaltegietan matrikulatzea; klik egitea da gure hizkuntzaren aldeko konpromisoak hartzea. Klik egin nahi diogu garai berri bati, kulturari, geure hizkuntzari. Laburbilduta, "Klik" leloaren bitartez esan nahi dugu euskararen garaian gaudela, unea dela euskararen alde aktibatzeko, erabakiak hartzeko.

KORRIKari ere klik egin beharko diogu.

Jakina. Modu asko dago horretarako: KORRIKA kulturalako

ekitaldietara joanez, lasterketa zuen herritik igarotzen denean korrika eginez, KORRIKA **batzordeetan**¹⁷ parte-hartuz... Aurreko edizioetan parte hartu izan baduzue, seguru nago KORRIKA iristeko **irrikan**¹⁸ zaudetela; orain arte parte hartu ez baduzue, berriz, ez galdu aukera, hurrengo KORRIKA etorri arte urte luze bi itxaron beharko duzue eta. Anima zaitzete, eta KORRIKAn ikusiko dugu elkar.



Irakurri duzun testuaren arabera, ondokoak egia ala gezurra dira?

EGIA GEZURRA

- | | | |
|--------------------------|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 1. KORRIKAn, 2.000 kilometro baino gehiago egiten dira, inoiz gelditu gabe. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 2. KORRIKAn helburuetako bat da euskaltegiei diruz laguntzea. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 3. 1980. urtetik gaur arte, 21 KORRIKA egin dira. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 4. 21. KORRIKAn, korrikalariak 10 egunez ibiliko dira Euskal Herrian zehar. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 5. Mezua sekretua da, eta lekukoaren barruan joango da Garestik Gasteiza. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 6. KORRIKA guztietan, lekuko bera erabili da, Remigio Mendiburuk egin zuena. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 7. Asier Amondok esan du 21. edizioko kanta arrakastatsua izan dela. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 8. KORRIKak <i>Txillardegik</i> omenduko du, besteak beste ¹⁹ euskara batua sortzen lagundu zuelako. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 9. <i>Txillardegik</i> , umetan, ez zekien euskara, eta ikasi egin behar izan zuen. |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 10. "Klika" leloa <i>Txillardegik</i> sortu zuen. |

- 1. **Izan ere:** de hecho; *en fait*
- 2. **Dagoneko:** ya; *déjà*
- 3. **-(ar)ekin batera:** junto con; *avec*
- 4. **Ekitaldi:** acto, evento; *acte, évènement*
- 5. **Garai:** época; *saison*
- 6. **Lasterketa:** carrera; *course*
- 7. **Erraldoi:** gigante; *géant,-e*
- 8. **Arineketan:** *korrika*
- 9. **Aparta:** excepcional; *extraordinaire*
- 10. **Bultzatu:** fomentar; *favoriser*
- 11. **Argitaratu:** publicar; *publier*
- 12. **Lekuko:** testigo; *temoin*

- 13. **Arrakasta:** éxito; *succés*
- 14. **Nabarmendu:** sobresalir; *(se) distinguer*
- 15. **Sorrera:** origen; *origine*
- 16. **Funtsezko:** clave; *fundamental,-e*
- 17. **Batorde:** comité; *commission*
- 18. **Irrikan:** deseando; *en souhaitant*
- 19. **Besteak beste:** entre otras cosas; *entre autres*



04 Denbora-pasak


GURUTZEGRAMA

GOITIK BEHERA:

1. Aurten, *Txillardegi* da.
2. Urtero aldatzen da. Nondik nora esaten digu.
4. Aurten, "Klika" da.
6. KORRIKA egiten da euskararen _____

EZKERRETIK ESKUINERA:

3. Barruan, mezua eramaten du. Eskuz esku iristen da.
5. KORRIKA antolatzeko, ezinbestekoak dira (bi hitz).



7 BAIETZ

ZENBAT DAKIZU KORRIKARI BURUZ? ETA AEKRI BURUZ? IKUSTAGUN²⁰!

1. Nork antolatzen du KORRIKA?

- a) HABEK, noski!
- b) AEK-k. Galdetzea ere...
- c) Eusko Jaurlaritzak, ezta?
- d) Aurrekoak ez dira zuzenak.

2. KORRIKA egiten da...

- a) ... urtero.
- b) ... bi urtean behin.
- c) ... hiru urtean behin.
- d) ... lau urtean behin.

3. KORRIKA, gauez...

- a) ... bizikletaz egiten da.
- b) ... korrikalari profesionalak jarraitzen dute.
- c) ... gelditu egiten da; **bestela**²¹, gehiegi, ezta?
- d) ... ez da gelditzen! Euskaldunok ez dugu mugarik!

4. Nola sortu zen ideia?

- a) Bilera batean, horixe zelakoan ideiarik onena eta zentzuzkoena.
- b) Ideia kopiatu egin genuen, Ameriketako indigenek antzeko ekimen bat egiten zuten.
- c) Bilera osteko afari batean, nola bestela?
- d) Aurrekoak ez dira zuzenak.

5. Ideia gehiago ere izan ziren. Adibidez:

- a) Eskultura-**erakusketa**²² ibiltaria.
- b) Euskal Herriko tontor guztietara **aldi berean**²³ igo eta bolanderak botatzea.
- c) Aturritik Ebrora, urak lotuko zituen ibilbide sinboliko bat egitea.
- d) Guk **dakigula**²⁴, aurreko guztiak ez dira zuzenak.

6. Zer esan nahi dute AEK siglek?

- a) Azterketak Egiteko Komisioa
- b) Aurrera Euskara Koordinadora.
- c) Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea.
- d) A ze **irudimena**⁶! Aurrekoak ez dira zuzenak.

7. Zenbat Euskaltegi ditu AEK-k Euskal Herrian?

- a) 80 baino gutxiago.
- b) 80 inguru.
- c) 92, **zehazki**⁷.
- d) 100 baino gehiago.

1. **Ikustagun!**: veamos!; *allons voir!*

2. **Bestela**: si no; *sinon*

3. **Erakusketa**: exposición; *exposition*

4. **Aldi berean**: al mismo tiempo; *en même temps*

5. **Guk dakigula**: Que sepamos; *qu'on sache*

6. **Irudimena**: imaginación; *imagination*

7. **Zehazki**: exactamente; *en détail*

Hiztegia

ERANTZUN ZUZENAK:
korrika.eus